



## Premios Gure Artea 2020 Sariak

2020- 10-01 Museo Guggenheim 01-10-2020

### Lehendakariaren hitzaldia-Intervención del Lehendakari

Sailburua, herri agintari eta ordezkariok, epaimahaikideok, jaun andreok, arratsaldeon.

Asko aldatu dira gauzak iazko Gure Artea Sarien ekitalditik hona. Iazko ekitaldia jendetsua izan zen Artium Museoan. Aurten, berriz, espero genituen hainbat eta hainbat lagun ezin izan dira etorri.

Pandemiak hankaz gora jarri du gure mundua, ez dago salbuespenik. Hankaz gora jarri ditu gure gizartearen arlo guztiak, baita kulturarena eta artearena ere. Gauzak zeharo aldatu dira azken hilabeteetan. Bistan da.

Baina beste gauza batzuk ez dira aldatu. Ez dira aldatu gure balioak eta printzipioak. Ez da aldatu kulturarekin dugun konpromisoa. Uste dugu Euskadik herri sortzailea izan behar duela herri bizia izaten jarraitzeko. Euskadik kultura, artea eta sormena behar du Europan eta munduan gure argi propioa izaten jarrai dezagun.

Somos un País con vocación cultural porque queremos consolidarnos como un País avanzado, cohesionado y vital. La cultura y el arte con el soporte de un País creativo, de personas creativas; un País abierto, de personas abiertas.

Kulturak eta arteak erakutsi digute ahalmen ikaragarria dutela gure gizartea eratzeko, gure herriaren kohesioa indartzeko, Euskadi eraldatzeko eta Basque Country herri-irudia munduratzeko.

Ondo dakizue hori Guggenheim Bilbao Museoan. Horregatik kultura arlo estrategikoa da Euskadi-Basque Country strategiaren barruan.

Une latz honetan, berresten dugu gure konpromisoa kulturarekin eta artearekin. Osasun publikoarekin dugun konpromisoa ere berresten dugu.

Momentu zail hauetan gizarteari lasaitasun mezu bat helarazi nahi diogu. Egoera honen aurrean oinarrizko bi irizpide mantenduko ditugu:

- osasun publikoaren lehentasuna eta osasun agintarien gomendioak jarraitzea; eta
- adostasunaren bidea lantzea eta jorratzea, erakundeen lankidetzaren bidez.

El virus sigue entre nosotras y nosotros. En estos momentos de pandemia y dificultad transmitimos un mensaje de tranquilidad y seguridad a la sociedad vasca.

El Gobierno Vasco, el Departamento de Salud y Osakietza vamos a seguir trabajando desde la gobernanza colaborativa. Nuestras decisiones se van a basar en las recomendaciones de la Organización Mundial de la Salud, el Consejo interterritorial de Salud y el Comité asesor del LABI.

En Euskadi seguimos en situación de emergencia sanitaria y la clave es COLABORAR Y SUMAR FUERZAS. La salud y seguridad de las personas es nuestra prioridad.

En este contexto de dificultad, trasladamos a la sociedad vasca nuestro compromiso con las recomendaciones de las autoridades sanitarias. Nuestro compromiso con el rigor y la corresponsabilidad.

Este es un compromiso compartido para garantizar el bien común: la SALUD PÚBLICA.

Termino. Hoy ratificamos, también, nuestro compromiso con la cultura y con el arte. Este es el sentido de los Premios Gure Artea.

Nuestro compromiso con las y los agentes que conforman el sistema vasco del arte, con las y los creadores vascos. Nos comprometemos a seguir trabajando para reconocer el talento de creadores y artistas para contribuir a hacer más visible y reconocida vuestra obra.

Reconocer y dar a conocer. Esos son los objetivos de los premios Gure Artea.

Pello Irazu, Laida Lertxundi eta Leopoldo Zugaza eskerrik asko eta zorionak! Gure asmoa, nahia eta gogoia da zuen lana aitortzea eta zuen ekarpena ezagunagoa egitea.

Jomugan jarri nahi dugu zuen talentu, lan eta ibilbidea euskal gizartearen artean.

Pello Irazu, eskerrik asko euskal arte garaikideari egin diozun ekarpen bikainagatik. Gogoan dut hemen bertan “ikusi eta bizi” izan nuen zure erakusketa.

Laida Lertxundi, eskerrik asko nazioarteko dimentsioa eman diozulako gure arteari, muga guztiak hautsiz. Gogoan dut zure ekarpenaren berri nazioartetik jaso nuela lehenengo aldiz.

Leopoldo Zugaza, gaur egun oso berezia da. Valentzian izan ziren bilduta Korte Nagusiak Agirre Lehendakaria bere zin egitea baino gehiago, gaurko egun batez Estatutua onartu egin zelarik. Eta momento hau baliatzen dut, Bilboko alkatea ez dagoela gure artean berak gaur justu momento honetan alde egin behar izan duelako, justu gaur antzezten delako “*De Gernika a Nueva York, pasando por Berlin*” Agirre Lehendakariari buruzko lana.

Leopoldo Zugaza eskerrik asko por seguir siendo un “joven incansable” dinamizador de la cultura vasca. Gogoan dut Durangoko Azokan hasi eta Fotmuseum-eraino egindako ibilbide oparoa.

Euskadik zuen arte eta sormena behar du. Zuek zarete Gure Artea.

Zorionak, beraz, Pello, Laida, Leopoldo eta, bihotz bihotzez, eskerrik asko!